

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroekiko harremana pertsonalizatua izango da. Gure enpresak uste du, **harreman mota hau egokiena** dela, hain zuzen ere, honen bidez arreta zehatzago eta pertsonalizatu bat eskainiko dugu, eta hori da bezeroek bilatzen duten harreman mota, laguntza eta zalantzak argitzeko baliabideak ematea.

Alde batetik, on-line bidezko harremana, gure webgunean aukera emango dugu, zalantzak edo ezjakintasunak argitzeko, horretarako, langileak txertatuko ditugu erantzuna emateko gain direnak, noski.

Beste aldetik, harreman fisikoa emango dugu, zenbait lokal edukiko ditugunez, bertara joan daitezke harreman fisikoa izateko, hain zuzen ere, hainbat bezeroek harreman mota hau nahiago dutelako, edo ez dutelako teknologia aparaturik eskuragai.

Horretaz gain, konponketa-zerbitzu bat eskainiko dugu, era askotako arazoak konpontzeko eta garrantia sistemak eskainiko ditugu bezeroen aukeraketan uzteko. Gure enpresak dohainik konponduko dituen arazoak, sistemaren konponketak, edo karkaxaren arazoei buruzkoak izango dira, baina kolpe baten kontua bada, diruaren truke izan beharko da.

Bukatzeko, bezero guztiei bazkide izateko aukera emango diegu, fidelizazio mamitsuago bat lortzeko helburuarekin, gainera, alderdi ezberdinetan deskontuak izateko aukera paregabea izango dute, produktua erosteko orduan, webgunean suskribatzeko orduan edo ekitaldi zein jarduera bereziak antolatzerako orduan parte hartzeko gaitasuna edo boterea izango dute. Azkenik, nabaritu nahi genuke, txartel honen bidez telefono pertsonalizatu bat izango dute eskuragai, zalantza, arazo edo laguntzak argitzeko helburuarekin.

